

## **Etxe berri baten eraikitzea 1958an Ezterenzubiko mendian**

E.: eta mila beatziehun ta berroita zortzian bizi zinezten etxeen, beraz, Benttan, Eztentzubi-Benttan, etxea puxka atxaartia zela, erabaki xinien etxe berri baten egitea? Nola plantatu xinen?

L.: ba, leenik amari erran nindakolaikan, amaiarrebari: “oi, oi, ze etxea, badakika ze lana hartzen duxun?” Ta “ze, sosa bea ik etxea, etxe baten iteko!”, ta “bana ze na uxu itia, ez xu, eh bon, bear den guzia eta ez xu etxeain hasten delaikan behala sosa behar, beha uxu nunbaitetik zeit, bana etxea hasi, zernai izanik, zaar au, oai, hau ez xu eta familia atendako, erteko moldian, teillatiaiñ gaiñea ezin igan, latak eta zahartiak”, leengo, lehen eta iten baitzuzten teillak, eta gisu-labetan, hetaik zernai baitzen, teillak, arrunt, oai, untsa erriak ba, bana makurrak. Hetaik bazunan zernahi, ordian, hetan, hausten zielaik hek, negian karrointiaikilan hasuten zielaik hek, gero itazura ezin arraña, beeretik makila atekilan aal bazeñ teilla kurriaazi, itazurain kentzeko doia, ta beste bultan, berriz, erauntsi aundiak iten zielaikan, untzi atzuekilan batzuekilan estekatzen, ta te, te, te, untziekilan itazuren mintzeko ganerrea, na hori ia, ia, hori nik erran nakolaikan: “ez, ez, aski oai, ez xu, bear xiu zerbait in”, ta, ta geo hasi nintzalaikan eta notariaikilan: “ez zuxun ez irri iteko geo!”. Bazitxun... Bazitunan, zernai izanik, bi, bi endaia arreñatzeko, bi familia andana, Bentakoak, ta, zernai izanik, hirugarrena, ene emaztiain ta familia ori, aurridiak, bena aitzineko familiak Ameiketan ibiliak, ba, Ameiketaa joan dienak, bestze atzu, bon, hek zahartiak ba, beste atzu gaztiak, ono, oai, guk osea, osea erten gininan eta hek, emaztiak, aldiz, hor baño Xaltoineko anderia re ba, Aoztaldeko anderia re ba Benttan sortiak, ta hoik hola, horiek eta Benttaineko familiatik jinak, ta, alo joanak, geo gizonkia, gizonkiak denak Ameiketaa joanak, hek Joseph, eta Peio, ta Gaxte, ta Extean, Extean, Joanes, Mañez, berriz, eta hua eta gure amaiarrebain lemiziko senarra gerlan hila, hek e hameka haur edo, ta horiek guziak arreñatu bear bainitin, (...) bear baninin, etxeen ez zinan ene amaiarrebak ono peza at ez zinan eta, oai, maiten al bere alabari, zernai izanik, guk etxeain iteko artu ginin lur peza ori ez zinan eta alabari emaiten al, ez baitzen deus e arreñatuik, ha, ta ni asi, jakiten al dun, murrua... Murruik iten hasi gabe ni, eun mila lirakoak igorri tinat notarian, oi ama, horiek guziak jin artio, bea in kusi, eh, nola den, etxe aten hastia, ta geo amaiarrebai erten zena: “oai hoi uxu xu, ba doaiket denek utziz, nola izain da gero re”, nik erran niakoxun den bezala erran nakonan, ta egia baitzen, denek utziz, ze iten aal zen, ta ordian alaxet, jarri ginelaikan aski untsa gue paperrak oro arreñatuik notarian, bon, are, ordian, geo joan nindunan, oriek guziak arreñatu-ta, Biarritzat, Biarritzen eta bazitunan eta zerak, des plans types, oiek ola, eta oai hunbeste pa...

Oai plan batzu olaxet, hautatzeko. Etxeain portreta, ta heen gastiak, ariz geo gastia zonbat zen, ta han zitunan denak inak untsaxko, plan bat alo, hola, hala hua, bon, hua erosten zunan, hua erosteakin, ta kanttel ba, bost edo sei karri tinat, nai zena autatzeko etxea, etxeen eakusteko denek ea zoin zuketen nahi, ta hola, geo ah, hartaik, geo are, arbole aurtikitzen asi gintunan zurtatien iteko, ta parpein karreun ta sableka ta, beden, bi urte aitzinetik prepaazionia, ez dun beala geo, eh! Bi urte, beden, ah ba, harginik eta jin gabe haat, denak hurrandu artio, ta geo, hara, undarrian hurrandu gintilaik aski denborain bortxaz, ta geo etxeko lanak in bear baitzien, niaur bakarrik gizona, niaur bakarrik, neor ez besteik, ara, han mutilak paatuz, langiliak, eta an denak, ba, ba, ez dun, erreposki un, ba, astia, bana hala as eta, in, ba, ala re, ez din importaik, untsa guziak, amaiarrebak erranik e nuntik bear nien paatu, denak paatu tinau, ba, ba, ta aise ono, ez zunan kapital aundia orduko, oaikoen arabera difeentzia baitzen, bana sosain arabera, ordian, sosai, ez baitzen sosik, ez baitzen sosik oai zen guzia, geo etxea in-eta, bost urte ukан tinat, deus e ez ninan paatzeik, bost urte, ta notariak in zitinan kundu... Kundiak in zitinan eta geo notariak ezarri zianan eta, hogoi urtez pagatzeko baitzen, hamost... Hamabi urtez paatzeko, soma at, geo baninan zera re, eta ze erten da, launtza, oai... Suvention-iak, suvention-ia, ua re bildu ninan, ba, ta hak laundu gitin ba biziki ak, laundu gitin ak e, ta suvention-ia, hak parte audi bat laundu baitu, hak e, bon, aski goizik in bear baitira denak, benan notariak erran zianan suvention-ian dretxoa banila, ta ni, ba, ba, notariak arrañatzen dina nik biziki untsa, ta geo paatu dinat ala-ala, eh! Hain elea nik paatu dinat, eh, geo! Bana ez, oai, ideia atzu, hala, ene launtzeko zunan ua, ta...

E.: eta etxe kozkorra egin duzie, familia polita baitzinuten ere.

L.: bon, orduko eta six, f six zunan, f six, hala artu dinau, zera, oai, eta (...) sei haur seur bazitunan ordian, eh! Ordukotz. Bat sortia zena, bestiak e, denak, zazpiak e ba. F six, ta geo berriz, hala, artan berriz harrapatu, hartan beaun kusi, plan artan kusten baitun ta zonbat ganbara dien, ta nola... Ze barne din. Ordian bazunan, zernai izanik, laatan oita hemezorzi metra carré edo bazunan denak, ganbara, ta sala, ta sukalde, ta orik guziak, oai eta zer... Suventzion-etan zienak, Suventzion-etan zienak, ta hori... Hak suvention-iak emaiten zianan metra... Metra carre-ko mila lira, ta ordian hua bazunan, hua beti, urte guziz bazunan metra mila lia, oai, eta dekalratia zen hain metra carré, etxeain metra carré-a. Zernai izanik, ehun ta, ba eun ta biga seurik, ez ziakinat, zernai izanik, ua bazunan urte guziz, ta ordian guk beste partia gininan kurritu bear, a ba. Geo aepres, kundu guziak in zielaikan, ta notariak erran zianan ta eun mila lira ta urtian paatzeko guaun partia, ta ono, hua zunan ono aundiela, guk ez gininan, notariak ono beiratu, bi miliun eta ez ninan suvention-eik, erran nai, ta oai, bi

miliun bano geio ez ninan ateatzen aal, bon, etxea ttipia zelakotz, ta etxaldia ttipia zelakotz, ta bi miliun, orduko sosa, ta ono bi miliunetan erran zianan ta “ba, iten al bauzu gutio altxatuik aiseo paatuko uzu, ta berreun bat mila lia gutio altxatzen bauzu, ta akor gira ortan, ta sos kotsia iten duzu”, “ba, bear e iten dut”, eta bon, are, ordian, miliun bat eta zorztzieun liretan, ara, zortzieun mila lira tinat anpruntatu tuanak, ea, là il fallait jouer, ba, hartan, hartan ina un gue etxe, alo, erran nai dinat oai, etxea ta laundia ba, suvention-atia baitzen, bana lana frango guauk ina in, anitz lan guauk in, ba.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filología doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahsoskerari lotu zaio egin ahala